eman ta zabal zazu
universidad del país vasco — euskal herriko unibertsitatea

FINANTZA ZUZENDARITZA: FINANTZAKETA

3. eta 4. gaiko test teorikoa — **2 EREDUA**

IZEN ABIZENAK: Miguel Berara Cengotita NAN: 44349879Z

1.- Zein EZ da epe laburreko banku-maileguaren ezaugarri bat?
a) Enpresak ordainketa bakar batean jasotzen du erakundeak ematen dion finantzaketa.
b) Interesak zenbateko osoaren gain ordaintzen dira.
c) Mailegu-hartzaileak zenbateko printzipala eta interesak aurretiaz adostutako epeetan itzuli beharko ditu.
d) Automatismoa.
e) Aurreko guztiak epe laburreko banku-maileguaren ezaugarriak dira.

2.- Banku-mailegua emateko erabakia eta beraren baldintzak, zeren arabera finkatzen dira?
a) Enpresaren kaudimenaren eta dituen inbertsioei orain arte atera dien errentagarritasunaren arabera.
b) Enpresaren likidezia eta salmenta bolumenaren arabera.
c) Enpresaren kaudimenaren eta diru horrekin finantzatuko den inbertsioak kutxako fluxuak eragiteko ahalmenaren arabera.
d) Ratioan oinarriturik bankuak egindako enpresaren analisi sakon baten arabera.
e) Aurreko guztiak okerrak dira.

3.- Honako baieztapen hauetatik, zein da zuzena?
a) Hirugarrenei ordaindu beharreko gastuek mailegu-hartzailearen errentagarritasunean eragina dute.
b) Hirugarrenei ordaindutako irekiera-komisioaren eraginez, UTB urteko kostu efektiboa baino handiagoa da, gainontzeko baldintzak konstante mantentzen badira.
c) Interes bezala ordaindutako kopuru osoa berdina da mailegu berean aplikatutako amortizazio sistema edozein izanda ere.
d) Interesen ordainketaren aldizkakotasuna zenbat eta handiagoa izan, maileguaren kostu efektiboa hainbat eta handiagoa izango da.
e) Aurreko bat ere ez da zuzena.

4.- Epe laburreko mailegu baten kostu efektiboa:
a) Altuagoa izango da, gainontzeko kostu elementuak aldagabe mantenduz, interesen ordainketarako aldizkakotasuna txikiagoa denean.
b) Baxuagoa izango da, gainontzeko kostu elementuak aldagabe mantenduz, finantza erakundearen aldeko gastu eta komisioak handiagoak direnean.
c) Sekulan ez da izango interes tasa nominalaren berdina.
d) Baxuagoa izango da, gainontzeko kostu elementuak aldagabe mantenduz, interesen ordainketarako aldizkakotasuna handiagoa denean.
e) Aurreko bat ere ez da zuzena.

5.-Maileguaren urteko tasa baliokidearen (UTB) kalkuluan:
a) Diru-laguntzak barneratuko dira, bi aldeko merkataritzako ezaugarriak baitira.
b) Hirugarren aldeko gastuak daudenean, urteko kostu efektiboa UTB baino handiagoa da.
c) Inoiz ez da izango urteko kostu efektiboaren berdina.
d) Interes ordainketen aldizkakotasunak urteko kostu efektiboa eta UTB ezberdinak izatea eragiten du.
e) Aurreko guztiak zuzenak dira.

6.- Merkataritza-deskontuari dagokionez, honako baieztapenetatik zein da zuzena?
a) Bankuak itzulketa edo ez ordainketa arriskua bere gain hartzen du.
b) Finantza-erakundeek zailtasun handiz ematen duten finantza-tresna bat da, izan ere, mailegua baino arrisku handiagoa baitu.
c) Enpresa libratzaileak (igorlea) berme bikoitza du, alde batetik, libratua (igorria) eta bestetik, bankua.
d) Geroratutako ordainketa duten salmenten zenbatekoa aurretik erabiltzea ahalbidetzen dio enpresari.
e) Aurreko guztiak zuzenak dira.

7.- Deskontu lerroaren muga minimoa (gainontzeko baldintzak konstante mantentzen badira):
a) Handitu egingo da, deskontatu beharreko efektuen kopuru osoa gutxitu egiten denean.
b) Gutxitu egingo da, deskontatu beharreko efektuen batez besteko epemuga handitu egiten denean.
c) Gutxitu egiten da, salmenta kopuru osoa handitu egiten denean.
d) Handitu egiten da, salmenten kopuru osoaren batez besteko epemuga handitu denean.
e) Aurreko bat ere ez da zuzena.

8.- Deskontu eragiketa baten kostu efektiboa:
a) 15 egun baino epemuga gutxiagoko efektuentzat txikiagoa izango da, komisio minimoak soilik kontuan hartuko baitira.
b) Efektu sortaren batez besteko epemuga erabiltzen denean handiagoa izango da.
c) Epemugan soilik kalkula daiteke.
d) Fondoen aurrerapenetik efektuen epemugara arteko epearen araberakoa da.
e) Kreditu erakunde bakoitzak ezarritako komisio minimoez gainekoaren alderantziz proportzionala da.

9.- Deskontu eragiketa baten urteko tasa baliokidea (UTB):
a) Beranduago deskontatzera eramaten diren efektuetarako txikiagoa izango da.
b) Nominal gutxiagoko efektuetarako txikiagoa izango da.
c) Kobru kudeatzeagatiko komisio minimoa handitzen den neurrian handituko da.
d) Tinbrea gutxitzen den heinean txikiagoa izango da.
e) Aurreko bat ere ez.

10.- Deskontu eragiketa baten efektiboa, gainontzeko baldintzak konstante mantenduz:
a) Aurrerapen egunak zenbat eta gehiago izan, hainbat eta handiagoa izango da.
b) Kobru kudeatzeagatiko komisioa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da, baldin eta komisio minimoa gainditzen bada.
c) Salmenten zenbateko nominala zenbat eta txikiagoa izan, hainbat eta txikiagoa izango da.
d) Bankuak ezartzen duen urteko deskontu tasa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa izango da.
e) a eta b zuzenak dira.

11.- Merkataritza-deskontuaren urteko kostu efektiboa:
a) UTBren berdina izango da, tinbrea ez dagoenean.
b) Zenbat eta kobrantza-kudeaketa komisio minimoa handiagoa izan hainbat eta txikiagoa izango da.
c) Konstantea izango da, funtsak aurreratzen direnetik efektuaren epemuga arte igaro den denbora edozein izanda ere.
d) Konstantea izango da, tinbrearen eta kobrantza-kudeaketa komisioaren zenbatekoa edozein izanda ere.
e) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.